



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

# ERAIKIN ETA INSTALAZIOEN ARDURADUN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA

## LEHIAKETA-FASEA merituen balorazioa (behin betiko emaitzak)

Epaimahai kalifikatzaileak, 2026ko martxoaren 31n egindako bileran, honako hau erabaki du:

**Lehena.**- \*\*4661\*\*\* NAN zenbakiko hautagaiak aurkeztutako idatzia ez onartzea, eta horren zergatia berari jakinaraztea.

**Bigarrena.**- \*\*4766\*\*\* NAN zenbakiko hautagaiak balorazioa berraztertze eskaera onartzea, baina emandako puntuazioa bere horretan mantentzea, eta horren arrazoia berari jakinaraztea.

**Hirugarrena.**- \*\*5608\*\*\* NAN zenbakiko hautagaiak aurkeztutako alegazioa onartzea, hautaketa-prozesuko 9.2 oinarriak adierazten duelako, iturgintzako, berokuntzako, klimatizazioko, argiteriako, instalazio elektrikoetako, elektrizitateko eta instalazio fotovoltaikoetako arloetan LH II-ko, erdi- edo goi-mailako titulu bakoitza edo unibertsitate-gradu bakoitza (prozesuan parte hartzeko alegatu ez bada) 7,5 punturekin baloratuko dela, eta ez 7 punturekin; eta ondorioz, lehiaketa fasean 18,6 puntu ematea.

**Laugarrena.**- \*\*5464\*\*\* hautagaiari lehiaketa faseko puntuazioa ofizioz zuzentzea, eta 9,5 puntu ematea, hautaketa-prozesuko 9.2 oinarrien arabera, iturgintzako, berokuntzako, klimatizazioko, argiteriako, instalazio elektrikoetako, elektrizitateko eta instalazio fotovoltaikoetako arloetan LH II-ko, erdi- edo goi-mailako titulu bakoitza edo unibertsitate-gradu bakoitza (prozesuan parte hartzeko alegatu ez bada) 7,5 punturekin baloratzen delako, eta ez 7 punturekin.

**Bosgarrena.**- Lehiaketa-fasearen behin betiko emaitza hauek onartzea eta argitaratzea:

NAN	Hautaketa prozesuko zkia	Lan - esperientzia	Prestakuntza osagarria	Behin behineko emaitza
**4847***	7	10,2	4,4	14,6
**5608***	8	5	13,6	18,6
**4661***	13	0	0	0
**4766***	26	5	0,4	5,4
**5464***	33	0	9,5	9,5

**Seigarrena.**- Interesatuei jakinaraztea erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela alkatearen aurrean hilabete bateko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Astigarragan, 2026ko martxoaren 31n.

Kontxi Urdanpilleta Santamaria  
epaimahaiburua.